



ETXEKO ZABORRA ETA HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA DEUSEZTATZEKO ZERBITZUAGATIKO TASAK

6. artikulua

Tasa hau kobratuko da zerbitzua emateagatik:

- 1. tarifa: Etxebizitzak.
- 2. tarifa (SALTOKIAK): Janari establezimenduak, arraindegia, fruta-dendak, harategiak, hotelak, ostatuak, tabernak, kafetegiak, gasolindegia, automobil eta motorren konponketa-argiketa, bankuak eta aurrezki- eta kreditu-erakundeak, eta, oro har, zerbitzu-establezimenduak eta gai galkorren saltokiak.
- 5. tarifa: Profesionalen lokalak etxebizitzarekin partekatuta.
- 8. tarifa: Jarduera profesionaletarako lokalak.
- 9. tarifa: Beste saltoki batzuk.
- 10. tarifa: Industriak, barne 500m² baino gutxiagoko biltegiak eta gordailuak.
- 11. tarifa: Irakaskuntza lokalak, ikastetxeak eta haien egoitzak.
- 12. tarifa: Erlijio-, kirol- eta kultura-erabilerako lokalak eta establezimendu publikoak.
- 13. tarifa: Osasun establezimenduak.
- 14. tarifa: Hainbat lokal (Komunitate-garajeak eta aurreko tarifetan sartzen ez diren lokalak).
- 17. tarifa: Gutxieneko pentsioa duten erretiratuek okupatutako etxebizitzak, baldin eta bakarrik bizi badira edo bestelako diru-sarrerik jasotzen ez duten senitartekoekin bizi badira. Ondorio horietarako, gutxieneko pentsioa duten erretiratutzat hartuko dira urte bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoa jasotzen dutenak.
- 20. tarifa: Industriak, barne 500m² baino gehiagoko biltegiak eta gordailuak.

TASAK

A) Etxebizitzetarako tasaren kostua (1 tarifa) urtean zenbateko finkoa izango da

B) Gainerako establezimenduetarako tasaren kostua lokal bakoitzeko izango da, eta urtean zenbateko finkoa ordainduko da bide publikoaren kategoriaren arabera. Ondore horretarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako adierazitakoak hartuko dira oinarri, baita lokalaren jardueran ere, gehi zenbateko bat metro koadroko, lokaleko azalera osoaren arabera.

C) Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, Ordenantza honetan jasotako tarifa guz_tien azalera osoa izango da Katastroko Higiezinaren Erregistroan agertzen dena



DERIO UDA

TARIFA	EU/u	EURO/m2/urte
ERRETIRATUAK	34,61 €	
ETXEBIZITZAK	81,41 €	
SALTOKIAK	394,69 €	1,86 €
ETXEBIZITZA ERE DIREN LOKAL PROFESIONALAK	142,51 €	0,85 €
JARDUERA PROFESIONALETARAKO LOKALAK	280,90 €	1,12 €
BESTE SALTOKI BATZUK	280,90 €	1,12 €
IRAKASKUNTZA, IKASTETXEA ETA EGOITZAK	138,40 €	0,43 €
ERLIJIO, KULTUR, KIROL ERABILERA	122,10 €	0,22 €
OSASUN ESTABLEZIMENDUAK	138,40 €	0,43 €
BESTELAKO LOKALAK: KOMUNITATEETAKO GARAJEAK, ETAB.	175,09 €	0,54 €
BILTEGIAK ETA INDUSTRIAK > 500 m2	394,69 €	0,54 €
BILTEGIAK ETA INDUSTRIAK < 500 m2	394,69 €	1,18 €